i) Realizar el seguimiento del cumplimiento efectivo de los derechos reconocidos a las víctimas de la violencia de género, así como apoyar y fomentar iniciativas y actividades tendentes a tal fin.

j) Establecer relaciones, cauces de participación y colaboración, y programas de ayudas económicas, con entidades, asociaciones y movimientos sociales que promuevan la actuación contra la violencia de género y, en particular el apoyo y atención a las víctimas.

k) Promover, en colaboración con la Academia de Policía del País Vasco y el Instituto Vasco de Administración Pública, planes de formación especializada de los colectivos profesionales y de la sociedad civil que intervienen en la prevención, atención y protección a las víctimas de la violencia de género.

l) Fomentar el estudio y análisis de experiencias y buenas prácticas con relación a la atención de las víctimas de la violencia de género.

m) Organizar, en coordinación con la Dirección del Gabinete del Viceconsejería de Seguridad, la recogida, análisis y canalización de datos referentes a las materias propias de esta Dirección, así como la elaboración y difusión de estadísticas adecuadas y actualizadas en el ámbito de su competencia.

n) Elaborar las directrices del Departamento en materia de atención a las víctimas de violencia de género.

ñ) Realizar cualesquiera otras funciones que le atribuya la normativa vigente.

2.– Para el establecimiento de las políticas de atención a las víctimas de violencia de género, la Dirección de Atención a las Víctimas de Violencia de Género podrá recabar de la Dirección de la Ertzaintza la información que a tal efecto precise.

Asimismo, contará con el apoyo de la Dirección de la Ertzaintza para implementar o aplicar directrices, circulares y objetivos que establezca la Dirección en materia de víctimas de violencia de género.

3.– La coordinación y seguimiento de los recursos y programas en materia de violencia contra las mujeres se llevará a cabo por la Dirección de Atención a las Víctimas de Violencia de Género sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 51.2 y 3 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

4.– La Dirección de Atención a las Víctimas de Violencia de Género y el Instituto Vasco de la Mujer

Erakundeak beharrezko neurriak hartuko dituzte bakoitzari dagozkion eginkizunak koordinatzeko.

***11. artikulua.***– Trafiko Zuzendaritza.

1.– Trafiko Zuzendaritza da, Herrizaingo sailburuaren zuzeneko ardurapean eta ikuskapenean, Autonomia Erkidegoko bide-segurtasuneko politikak egiteko eta kudeatzeko ardura duen organoa.

2.– Trafikoa eta bide-segurtasuneko araudian aurreikusi diren baimentzeko, ikuskatzeko eta zehatzeko ahalmenak baliatuz, eginkizun hauek dagozkio:

a) Trafiko, motordun ibilgailuen zirkulazio eta bide-segurtasunari buruzko arauen eta xedapen osagarrien aurkako lege-urratzeagatik hasitako zehapen-espedienteen izapideak egitea eta ebaztea.

b) Arauz ezarritako gehieneko masak eta neurriak gainditzen dituzten ibilgailuentzako baimen bereziak ematea, ezaugarri teknikoengatik edo karga zatiezina garraiatzen dutelako.

c) Lasterketa, txapelketa, lehiaketa eta, oro har, kirol-saioetarako baimena ematea eta horiei buruz jakinaraztea, zati batean edo osoan Euskal Autonomia Erkidegoko hiriarteko bideetatik egin behar direnean. Ekitaldi horiek direla-eta, jendetza handia bilduko dela aurreikusten denean, eta, beraz, horrek segurtasun-mailako arazoak ekar ditzakeela ikusten denean, arlo horri dagokion eskumena baliatzerakoan Ertzaintzaren Zuzendaritzarekin eta Larrialdiei Aurre egiteko Zuzendaritzarekin koordinatuko da.

d) Ibilgailu historikoei buruz indarreko araudian aurreikusitako eginkizunak.

e) Gidarien eskola partikularrak, baita zuzendaritzako langileak eta irakasleak ere baimentzea, kontrolatzea eta ikuskatzea.

f) Antolamendu juridikoak jarriko dion edozein.

Lehen aipatutako b), c) eta d) hizkiekin lotutako ahalmenak Trafikoko Lurralde-bulegoei dagozkien organoek beteko dituzte, bere eskumenen eremu barruan.

Lehen aipatutako a) hizkiarekin lotutako ahalmena Trafikoko Lurralde-bulegoei dagozkien organoek eta Automatizatutako Salaketak Izapidetzeko Zerbitzuko arduradunak beteko dituzte, dagokien eskumenen eremu barruan.

Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko zehapen-prozedura arautzen duen araudian aurreikusitako ondorioetarako, Trafikoko Lurralde Bulegoko edo Automatizatutako Salaketak

- Emakunde adoptaran las medidas necesarias para el ejercicio coordinado de las funciones que a cada una les corresponda.

***Artículo 11.***– Dirección de Tráfico.

1.– La Dirección de Tráfico, bajo la directa dependencia y supervisión del Consejero o Consejera de Interior, es el órgano encargado de elaborar y gestionar las políticas de seguridad vial en la Comunidad Autónoma.

2.– En el ejercicio de las potestades de autorización, inspección y sanción previstas en la normativa sobre tráfico y seguridad vial, le corresponden las siguientes funciones:

a) La instrucción y resolución de los expedientes sancionadores que se incoen por infracciones cometidas contra la normativa de tráfico, circulación de vehículos a motor y seguridad vial, y disposiciones complementarias.

b) Otorgar autorizaciones especiales para los vehículos que, por sus características técnicas o por la carga indivisible que transporten, superen las masas y dimensiones máximas reglamentariamente establecidas.

c) Autorizar e informar sobre las carreras, concursos, certámenes y pruebas deportivas en general, que discurran total o parcialmente por vías interurbanas de la Comunidad Autónoma del País Vasco. En los casos en que resulte previsible que dichos eventos puedan dar lugar a grandes concentraciones de personas con los consiguientes problemas de seguridad, el ejercicio de tal competencia se coordinará con las Direcciones de la Ertzaintza y Atención de Emergencias.

d) Las funciones previstas en la normativa vigente sobre vehículos históricos.

e) La autorización, control e inspección de las escuelas particulares de conductores y su personal directivo y docente.

f) Cualesquiera otras que le otorgue el ordenamiento jurídico.

Las facultades relacionadas en las letras b), c) y d) anteriormente mencionadas serán ejercidas por los órganos correspondientes de las Oficinas Territoriales de Tráfico dentro de su ámbito competencial.

La facultad relacionada en la letra a) anteriormente mencionada será ejercida por los órganos correspondientes de las Oficinas Territoriales de Tráfico y por la persona responsable del Servicio Tramitación de Denuncias Automatizadas en sus respectivos ámbitos competenciales.

A los efectos previstos en la normativa que regula el procedimiento sancionador en materia de tráfico, circulación de vehículos a motor y seguridad vial, será el Instructor o la Instructora de cada Oficina Territorial

Izapidetzeko Zerbitzuko instrukziogilea izango da zehapen-espedienteak izapidetzeko organo arduraduna.

3.– Trafikoa eta bide segurtasuna kudeatzearen eta kontrolatzearen alorrean, Trafiko Zuzendaritzari dagokio eginkizun hauek betearaztea:

a) Hiri-arteko trafikoa kudeatzea eta kontrolatzea. Hori betetzeko, maiatzaren 22ko 87/2001 Dekretuaren bidez sortu zen Trafikoa Kudeatzeko Zentroa eta helburu horretako sortutako gainontzeko instalazioak zuzentzea eta kudeatzea berari dagokio.

b) Herriz kanpoko bideetako segurtasuna eta arintasuna hobetzeko jarduerak planifikatzea, zuzentzea eta koordinatzea, batez ere hiri-bide eta herri handietarako sarreretakoak, zati eta gune arriskutsu eta trafiko handikoetakoak eta zeharbideetakoak.

c) Erabiltzaileei ematea bide publikoetako trafikoaren berri.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko bide publikoetako trafikoaren kontrola, antolaketa, zaintza eta diziplinako irudiak hartzeko eta erreprodukzioa egiteko bideo-kamerak eta beste edozein bitarteko jartzeko eta erabiltzeko agintzea, zeregin hori udalaren esku ez dagoenean.

e) Trafikoa arautzeko neurri bereziak ezartzea, indarrean dagoen legediarekin bat.

4.– Trafiko Zuzendaritzak izango du Ertzaintzaren Trafikoko Atalaren laguntza, aurreko paragrafoetan definitutako ahalmenak garatzeko. Ondorio horietarako, Trafikoko Zuzendaritzak dagozkion jarraibideak bidaliko dizkio Ertzaintzaren Trafikoko Ataleko buruari.

5.– Bide-segurtasunerako prestakuntza, hezkuntza eta ikerketaren alorrean, eginkizun hauek dagozkio:

a) Bide-prestakuntzako irakasle-titulua eta gidarientzako eskola partikularren zuzendariaren titulua lortzeko ikastaroak antolatzea, aipatutako titulu horiek ematea eta eskola horietako irakasleentzako birziklatzeko ikastaroak antolatzea.

b) Bide-hezkuntza, -prestakuntza eta -segurtasunaren arloko jarduera-programak planifikatzea eta egitea eta zabalkunde-kanpainak garatzea.

c) Sentsibilizazio eta bide-berreziketako ikastaroak emateko modua zehaztea eta kudeatzea.

d) Trafiko eta bide-segurtasunaren arloko azterketak eta ikerlanak egitea.

de Tráfico o el Instructor o la Instructora del Servicio de Tramitación de Denuncias Automatizadas, los órganos encargados de la instrucción de los expedientes sancionadores, siendo los competentes para sancionar los Responsables Territoriales de Tráfico o el o la Responsable del Servicio de Tramitación de denuncias automatizadas.

3.– En el ámbito de la gestión y control del tráfico y la seguridad vial corresponde a la Dirección de Tráfico el ejercicio de las siguientes funciones:

a) La gestión y control del tráfico interurbano. A estos efectos le corresponde dirigir y gestionar el Centro de Gestión de Tráfico creado por Decreto 87/2001, de 22 de mayo, así como cualquier otro tipo de instalaciones destinadas a tal fin.

b) Planificar, dirigir y coordinar las actuaciones para mejorar la seguridad y fluidez vial en las vías interurbanas, especialmente los accesos a las vías urbanas y grandes núcleos de población, así como en tramos y puntos peligrosos y de alta densidad de tráfico y en las travesías.

c) Informar a los usuarios sobre el estado del tráfico en las vías públicas.

d) Ordenar la instalación y uso de videocámaras y de cualquier otro medio de captación y reproducción de imágenes para el control, regulación, vigilancia y disciplina del tráfico en las vías públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco cuya regulación del tráfico no esté atribuida a los Municipios.

e) Establecer medidas especiales de regulación del tráfico de acuerdo con la legislación vigente.

4.– En el desarrollo de las atribuciones definidas en los párrafos anteriores la Dirección de Tráfico contará con el apoyo de la División de Tráfico de la Ertzaintza. A tales efectos la Dirección de Tráfico transmitirá al jefe de la División de Tráfico de la Ertzaintza las directrices correspondientes.

5.– En el ámbito de la formación, educación e investigación para la seguridad vial le corresponde el ejercicio de las siguientes funciones:

a) Convocar cursos para la obtención del título de profesor o profesora de formación vial y el de director o directora de escuelas particulares de conductores y conductoras, expedir los títulos correspondientes y convocar cursos de reciclaje para el personal docente de dichas escuelas.

b) Planificar, elaborar programas de actuación, y desarrollar campañas divulgativas en materia de educación, formación y seguridad vial.

c) Determinar el modo de impartir los cursos de sensibilización y reeducación vial y gestionarlos.

d) Elaborar estudios y trabajos de investigación en el ámbito del tráfico y seguridad vial.

Trafiko Zuzendaritzak garatzen du Trafiko eta Bide-segurtasuneko Behatokiaren eginbeharra, trafiko eta bide-segurtasunari buruzko informazioa biltzeaz, aztertzeaz eta zabaltzeaz arduratuko dena.

6.– Trafiko Zuzendaritzari eginkizun hauek dagozkio, arlo horretan erakunde guztien lankidetza bermatzeko:

a) Foru Aldundiekin harremanak izatea, bere eskumenak garatzeko eta betetzeko asmoz.

b) Errepideetako gaietan, eskumena duten administrazioekin lankidetza sustatzea, bakoitzak dituen eskumenak erabiltzen elkarri laguntzeko.

c) Beste herri-administrazioetako organo baliokideekin hartu-emanak sortu eta elkarlanerako jarraibideak finkatzea.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko beste organo batzuekin lankidetzan aritzea, batez ere Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin, ikastetxeetarako bide-segurtasunari buruzko berariazko programazioa lortzeko eta Osasun eta Kontsumo Sailarekin edari alkoholdunek, droga toxikoek, estupefazienteek eta sustantzi psikotropikoek istripuetan duten eragina aztertu eta egoera horri aurre hartzeko.

e) Eskualdeetako eta nazioarteko beste administrazioekin lankidetzan aritzea, Europa barneko errepideen sareko trafikoaren kudeaketari eta trafikoko informazioaren elkartrukeari dagokionean.

IV. KAPITULUA
SAILBURUORDETZAK

1. ATALA

***12. artikulua.***– Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza.

1.– Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzari dagokio, Herrizaingo Sailari agindutako eginkizunen barruan, hurrengo jarduera arloak zuzentzea eta koodinatzea: araubide juridikoa; ekonomia, ondarea eta aurrekontuak kudeatzea; saileko zerbitzu orokorrak eta giza baliabideak eta segurtasuneko egiturari laguntzeko baliabide teknikoak eta azpiegiturak.

2.– Horrenbestez, 5. artikuluan ikusitako eginkizun orokorrez gain, hauek ere betearaztea dagokio:

a) Herrizaingo Saileko arauzko politika eta plangintza proposatzea.

b) Saileko Aurrekontuen Aurreproiektua lantzeko koordinazioa eta aurrekontuak ebaluatzeko eta aztertzeko prozedurak artikulatzea, erabakiak hartzen lagunduko duena.

La Dirección de Tráfico desarrolla el cometido de Observatorio del Tráfico y Seguridad Vial encargado de recopilar, analizar y difundir información referente al tráfico y seguridad vial.

6.– Corresponde a la Dirección de Tráfico, a fin de garantizar la cooperación de las diversas instituciones en la materia, ejercicio de las siguientes funciones:

a) La relación con las Diputaciones Forales en el desarrollo y ejercicio de sus competencias.

b) Promover la colaboración con las Administraciones competentes en materia de carreteras con el fin de cooperar en el ejercicio de sus respectivas competencias.

c) Establecer la relación, así como las pautas de colaboración, con los órganos equivalentes de otras Administraciones Públicas.

d) La colaboración con otros órganos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y en particular con el Departamento de Educación, Universidades e Investigación en orden a lograr una programación específica de seguridad vial en los centros de enseñanza y con el Departamento de Sanidad y Consumo para analizar y prevenir la incidencia en los accidentes de tráfico de la ingestión de bebidas alcohólicas, drogas tóxicas, estupefacientes y sustancias psicotrópicas.

e) La cooperación con otras Administraciones regionales e internacionales en lo que respecta a la gestión de tráfico y al intercambio de información de tráfico en la Red Transeuropea de Carreteras.

CAPÍTULO IV
DE LAS VICECONSEJERIAS

SECCIÓN I

***Artículo 12.***– Viceconsejería de Administración y Servicios.

1.– Corresponde a la Viceconsejería de Administración y Servicios, dentro del ámbito de atribuciones encomendado al Departamento de Interior, la dirección y coordinación de las siguientes áreas de actuación: régimen jurídico, gestión económica, patrimonial y presupuestaria, servicios generales y recursos humanos del Departamento y los recursos técnicos e infraestructuras para el apoyo a la estructura de seguridad.

2.– A tal efecto le corresponde, además de las funciones genéricas contempladas en el artículo 5, el ejercicio de las siguientes funciones:

a) Proponer la política normativa del Departamento de Interior y su planificación.

b) La coordinación en la elaboración del Anteproyecto de Presupuestos del Departamento y la articulación de procedimientos de evaluación y análisis presupuestario que ayuden a la toma de decisiones.

c) Ondare eta aurrekontu gaietan, gainontzeko sail, erakunde eta entitateekiko koordinazioa.

d) Herrizaingo Saileko kudeaketa ekonomikoa eta administratiboa zuzentzea.

e) Sailaren politika zuzentzea eta gainbegiratzea, giza baliabide eta langileak kudeatzearen alorrean.

f) Segurtasun Administrazioko zerbitzu laguntzaileetako lan-kontratuko langile finkoa izateko hautapen-probak gainditu dituztenak kontratatzea, baita Saileko Administrazio Orokorreko langile funtzionarioen izendapen askeko lanpostuak eta Segurtasun Administrazioko zerbitzu laguntzaileen lan-kontratuko langileen lanpostuak hornitzea, horretarako deialdi publikoa egin aurretik.

g) Ertzaintzako kideen estatutu erregimena ezartzeko administrazio egintza eta ebazpen guztiak ematea, beste organo batzuei beren-beregi izendatu ez bazaizkie.

h) Sailburuordetzaren organoen jarduerak, oro har, zuzentzea, koordinatzea, bultzatzea eta ikuskatzea.

i) Saileko zerbitzuen barne-antolamenduaz eta lan egiteko moduez eta sistemez proposamenak egitea, Segurtasun Sailburuordetzarenak izan ezik, Herrizaingo Sailaren zerbitzuetako lan-sistemak arrazionalizatu eta hobetzearren, eta aipaturiko zerbitzuak eta poliziarenak koordinatzearren.

j) Sailburuari laguntza teknikoa ematea izendatuta dituen betebeharren alorrean eta, orobat, ordenamendu juridikoak ematen dizkion guztiak, baita aurrekoekin zuzenean lotutakoak ere.

3.– Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzaren menpe hauek daude:

– Kudeaketa Ekonomiko eta Kontratazio Zuzendaritza.

– Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritza.

– Baliabide Tekniko eta Azpiegituren Zuzendaritza.

– Giza Baliabideen Zuzendaritza.

***13. artikulua.***– Kudeaketa Ekonomiko eta Kontratazioko Zuzendaritza.

1.– Kudeaketa Ekonomiko eta Kontratazio Zuzendaritzak sailaren administrazio ekonomikoa eta kontratazioa egiteko ardura osoa du, eta horrenbestez, honako eginkizun hauek bete behar ditu:

a) Sailaren aurrekontu-aurreproiektua egitea eta zuzentzea, baita horren jarraipena ere egitea. Behar diren aurrekontu-aldaketak izapidetzea eta gastu-programen ebaluazioa egitea. Era berean, Euskal Herriko Poliziaren

c) La coordinación con los demás Departamentos, Organismos y Entidades en las materias patrimoniales y presupuestarias.

d) Dirigir la gestión económico-administrativa del Departamento de Interior.

e) Dirigir y supervisar la política del Departamento en materia de recursos humanos y gestión del personal.

f) Contratar a quienes hubieren superado las pruebas selectivas convocadas para el acceso a la condición de laboral fijo de los servicios auxiliares de la Administración de Seguridad, así como la provisión de los puestos de libre designación del personal funcionario de Administración General del Departamento y del personal laboral de los servicios auxiliares de la Administración de Seguridad, previa convocatoria pública de los mismos.

g) Todos los actos y resoluciones administrativas en aplicación del régimen estatutario de los miembros de la Ertzaintza que no están expresamente atribuidos a otros órganos.

h) Dirigir, coordinar, impulsar y supervisar, con carácter general las actuaciones de los órganos de la Viceconsejería.

i) Elaborar propuestas sobre la organización interna de los servicios del Departamento y de los sistemas y métodos de trabajo en el mismo, excepción hecha de los de la Viceconsejería de Seguridad, en orden a la racionalización y mejora de los sistemas de trabajo de los servicios del Departamento de Interior, y coordinar la relación de los mismos con los dependientes de los servicios policiales.

j) Prestar asistencia técnica al Consejero en el ámbito de las funciones que tenga encomendadas, así como cuántas le atribuye el ordenamiento jurídico y aquellas que estén directamente relacionadas con las anteriores.

3.– Dependen de la Viceconsejería de Administración y Servicios.

– La Dirección de Gestión Económica y Contratación.

– La Dirección de Régimen Jurídico y Servicios.

– La Dirección de Recursos Técnicos e Infraestructuras.

– La Dirección de Recursos Humanos.

***Artículo 13.***– Dirección de Gestión Económica y Contratación.

1.– La Dirección de Gestión Económica y Contratación concentra la responsabilidad de la administración económica y la contratación del Departamento y, en su virtud, ejerce, las siguientes funciones:

a) Elaborar y dirigir el Anteproyecto de Presupuesto del Departamento así como ejercer el seguimiento del mismo. Tramitar las modificaciones presupuestarias pertinentes y la evaluación de los programas de gasto.

Ikastegiaren aurrekontu-proiektuaren elaborazioa koordinatzea eta sailaren aurrekontuarekin bategitea.

b) Sailaren kudeaketa ekonomikoa, informazio-, etengabeko ebaluazio- eta jarraipen-sistemak ezarriz eta mantenduz.

c) Saileko kontratazio-organoari dagozkion eskumenak betetzea, kontratu horien gutxi gorabeherako balioa 500.000 eurotik gorakoa ez bada, baita Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 4. artikuluaren 1.n) atalean daudenak ere.

d) Era berean, Kudeaketa Ekonomiko eta Kontratazio Zuzendaritzari dagokio sailari atxikitako ondareko espedienteak kudeatzea.

Era berean, beste sail batzuetako organoen ardurapeko espedienteak bultzatzea ere eginkizun dauka.

e) Sailaren gastuak baimentzea, 500.000 eurotik beherakoak badira (BEZa barne).

f) Ekonomia-edukia duten arau-xedapenen, administrazio-hitzarmenen, eta diru-laguntzak arautzen dituzten aginduen aurreproiektu eta proiektuek duten eragina –lege, aurrekontu eta ekonomiaren aldetik- aztertu eta gainbegiratzea, fiskalizazio-organoetara bidali baino lehen. Era berean, derrigorrez txosten juridikoa behar duten administrazio-kontratazioko gaiei buruzko irizpenak ematea.

g) Berariaz Euskadiko Ogasun Orokorrari dagozkion arloak direla-eta, oro har, sail guztiei esleituta datozen gai orokor eta erkideak direlako, indarrean dagoen legeriaren arabera, Herrizaingo Sailari dagozkion zereginak ere bai.

2.– Herrizaingo Saileko Kontratazio Mahaia Kudeaketa Ekonomiko eta Kontratazio Zuzendaritzari dago atxikita. Kudeaketa Ekonomiko eta Kontratazio Zuzendaritzari dagokio Kontratazio Mahaiak aztertu beharreko administrazio-kontratazioko espedienteak kudeatzea.

***14. artikulua.***– Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritza.

1.– Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritza da Herrizaingo Sailari egokitutako kudeaketa arloan lege-araubideari buruzko jarduketetarako koordinazio-organoa. Horren ondorioz, saileko organo ezberdinei atxikitako lege-zerbitzuak bere goi-aginpidearen bidez koordinatuko ditu.

2.– Honako eginkizun hauek dagozkio Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritzari:

a) Herrizaingo Sailaren eskumenekoak diren alorrei dagokienez, legeak garatzeko planak prestatu, proposatu eta burutzea, kasuan kasuko xedapen orokorren egitas-

Igualmente coordinar la elaboración del proyecto de Presupuesto de la Academia de Policía del País Vasco y su consolidación con el presupuesto del Departamento.

b) La gestión económica del Departamento, estableciendo y manteniendo los correspondientes sistemas de información, evaluación continuada y seguimiento.

c) Las facultades correspondientes al órgano de contratación del Departamento en relación con aquellos contratos cuyo valor estimado no supere los 500.000 euros, así como los incluidos en el apartado 1.n) del artículo 4 de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público.

d) Así mismo corresponderá a la Dirección de Gestión Económica y Contratación la gestión de los expedientes de patrimonio que estén atribuidos al Departamento.

Igualmente le corresponde impulsar la tramitación de aquellos otros que sean de competencia de órganos de otros Departamentos.

e) Autorizar los gastos del Departamento que no superen los 500.000 euros (IVA incluido).

f) Examinar y supervisar, con carácter previo a su remisión a los órganos de fiscalización, la incidencia presupuestaria y económica de los anteproyectos y proyectos de disposiciones normativas con contenido económico, los convenios administrativos y las Órdenes reguladoras de ayudas o subvenciones; así como informar los asuntos relacionados con la contratación administrativa que requieran de informe jurídico preceptivo.

g) Las que, en relación con las materias propias de la Hacienda General del País Vasco, correspondan al Departamento de Interior por tener el carácter de comunes al venir atribuidas con carácter general a todos los Departamentos.

2.– Se adscribe a la Dirección de Gestión Económica y Contratación la Mesa de Contratación Departamento de Interior. Corresponderá a la Dirección de Gestión Económica y Contratación la gestión de los expedientes de contratación administrativa que deban ser examinados por dicha Mesa de Contratación.

***Artículo 14.***– Dirección de Régimen Jurídico y Servicios.

1.– La Dirección de Régimen Jurídico y Servicios es el órgano de coordinación de las actuaciones de esta índole en el ámbito de gestión encomendado al Departamento de Interior. A tal efecto coordina, a través de su superior dirección funcional, la actividad de esta naturaleza atribuida a los demás órganos del Departamento.

2.– Corresponde a la Dirección de Régimen Jurídico y Servicios el ejercicio de las siguientes funciones:

a) Elaborar y proponer los planes de desarrollo legislativo en las materias de competencia del Departamento de Interior y desarrollarlos mediante la elaboración de

moak landuz, hori guztia Sailaren barneko eragindako organoekin elkarlanean jardunda eta koordinatuta.

b) Herrizaingo Sailak parte hartzen duen jurisdikzio-prozeduren eta beren ebazpenen jarraipena eta kontrola.

c) Herrizaingo sailburuak edo Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritzak ebatzi beharreko administrazio-prozedurak izapidetzea.

d) Saileko edozein organok eskatzen dizkion legezko azterlanak eta txostenak eta aholkularitza ematea.

e) Jaurlaritzaren Kontseiluak eta, hala badagokio, horren Ordezko Batzordeak aztertu eta erabaki beharreko gaiei buruzko lege-txostena ematea, hala eskatzen denean.

f) Legeen aurreproiektuak, eduki arautzailea duten dekretu-proiektuak eta bestelako xedapen orokorrak bideratu behar direnean, aginduzko legezkotasun-txostenak egitea.

g) Sailak izenpetu behar dituen akordio eta itunei buruzko txosten juridikoak egitea.

h) Diru-laguntzak eta bestelako laguntzak arautzeko aginduen, administrazio-hitzarmenen eta xedapen orokorren proiektuei eta aurreproiektuei buruzko espedienteak izapidetzea.

i) Jaurlaritzaren Kontseilura eta bere eskuordeturiko batzordeetara bidali beharreko Sailaren gaiak izapidetzea, baita Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo beste edozein egunkari ofizialetan argitaratu beharreko xedapenak eta administrazio-egintzak ere.

3.– Orobat, Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritzari dagokio apirilaren 25eko 250/1995 Dekretuak Herrizaingo Sailari izendatzen dizkion eginkizunak betetzea; Ertzaintzako kideak jurisdikzio penal eta zibilean ordezkatzeko eta defendatzeko gaitasuna ematen baitu dekretu horrek.

4.– Langileei dagokienez, Segurtasun Administrazioko zerbitzu laguntzaileetako lan-kontratuko eta Ertzaintzaren langileak izan ezik, hauek dira Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritzari dagozkion eginkizunak:

a) Herrizaingo Sailak dituen giza baliabideak zuzendu eta administratzea, betiere, sailak dituen eskumenen barruan. Batez ere, hauek:

1) Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 10.1 artikuluaren arabera, sailaren esku utzitako eskumenak betetzea, beste organo batzuei emandakoak izan ezin, eta indarrean den arautegiak esleitzen dion beste edozein eginkizun ere bai.

los correspondientes proyectos de disposiciones de carácter general, todo ello en colaboración y coordinación con los diversos órganos departamentales afectados.

b) El seguimiento y control de los procedimientos jurisdiccionales en los que intervenga el Departamento de Interior, así como el de las resoluciones recaídas en ellos.

c) La tramitación de los procedimientos administrativos que hayan de ser resueltos por el titular del Departamento o de la Viceconsejería de Administración y Servicios.

d) Emitir los estudios e informes jurídicos y la prestación del asesoramiento que le fuere requerido por cualquier órgano del Departamento.

e) Informar de legalidad, cuando fuese requerido al efecto, los asuntos que vayan a ser objeto de examen por el Consejo de Gobierno y en su caso, las Comisiones Delegadas del mismo.

f) Emitir informes de legalidad con carácter preceptivo, de los anteproyectos de ley, proyectos de decreto con contenido normativo y demás disposiciones de carácter general.

g) Emitir informe jurídico de los acuerdos y convenios a suscribir por el Departamento.

h) Tramitar los expedientes de los proyectos y anteproyectos de disposiciones generales, de los convenios administrativos y de las Órdenes reguladoras de ayudas y subvenciones.

i) Tramitar la remisión de los asuntos del Departamento que hayan de ser sometidos al Consejo de Gobierno y a sus Comisiones Delegadas, así como la de aquellas disposiciones y actos administrativos que hayan de publicarse en el Boletín Oficial del País Vasco o en cualquier otro diario oficial.

3.– Corresponde igualmente a la Dirección de Régimen Jurídico y Servicios el ejercicio de las funciones que el Decreto 250/1995, de 25 de abril, sobre habilitación para representación y defensa ante las jurisdicciones penal y civil de los miembros de la Ertzaintza, atribuye al Departamento de Interior.

4.– En materia de personal, excepción hecha del personal adscrito a los servicios auxiliares de la Administración de Seguridad y la Ertzaintza, le corresponden a la Dirección de Régimen Jurídico y Servicios las siguientes funciones:

a) La dirección y administración de los recursos humanos del Departamento, en el ámbito de las competencias propias del mismo. En particular:

1) Ejercer las competencias que atribuye al Departamento el artículo 10.1 de la Ley 6/1989, de la Función Pública Vasca, vigente, salvo las expresamente atribuidas a otros órganos, así como cuantas otras funciones le atribuya la normativa.

2) Langile-beharrizanak ebaluatzea, plantillak osatzeko proposamenak egitea, eta lanpostu-zerrendak prestatzea.

3) Langileen arloan jartzen diren errekurtsoak ebazteko izapideak eta proposamenak egitea, funtzio publikoaren arloan ardura duten organoen eskumenen kaltetan joan gabe.

b) Langileen prestakuntza- eta hobekuntza-plan eta -programak bultzatu eta prestatzea, HAEEren eskumenei ezer kendu gabe.

c) Saileko langileak euskalduntzeko eta hizkuntza normaltzeko politika koordinatzea.

5.– Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritzari dagokio Administrazioa Eraberritzeko eta Modernizatzeko eskumena duen organoak agindutako ekimenak eta jarraibideak garatzeko eta gauzatzeko behar den euskarria bermatzea.

6.– Halaber, Herrizaingo Sailari dagozkion eginkizunak, informazio eta telekomunikazioko sistemen arloan, Zuzendaritza honi atxikitzen zaizkio, Informazio eta Telekomunikazioko Sistemen egitekoak eta kudeaketa-modalitateen planifikazioa, eraketa eta banaketa arautzen dituen 35/1997 Dekretuaren 7. artikulua betez.

7.– Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritzari dagokio Erregistro eta Artxibategi Sistema antolatzea. Halaber, Sailaren bibliografia-baliabideak Eusko Jaurlaritzako zerbitzu nagusietakoekin batera antolatzea, Herrizaingo Saileko beste organo batzuek dituzten eskumenen kaltetan joan gabe.

8.– Sailaren barruan, Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritza da Eusko Jaurlaritzak Europar Batasuneko araudia eta politikak landu eta ezartzeko koordinazio neurriak betearazteko ardura duena, betiere, indarrean dauden akordio eta arauekin bat.

9.– Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritza da sailaren zuzendaritza eta arlo guztiekin, eta organismo autonomoekin, erakunde publikoekin eta erakunde horiei atxikitako organoekin lankidetzan aritzeaz, koordinatzeaz eta horiek guztiak indartzeaz arduratuko den organo eskuduna, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako den otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Eusko Jaurlaritzak onarturiko Berdintasunerako Planean xedaturikoa betearazteko.

10.– Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritzari dagozkio antolamenduari dagozkion arloak direlaeta, oro har, sail guztiei esleituta datozen gai orokor eta erkideak direlako, indarrean dagoen legearen arabera, Herrizaingo Sailari dagozkion zereginak ere bai.

2) Evaluar las previsiones de necesidades de personal, realizar las propuestas para la elaboración de las plantillas y elaborar las relaciones de puestos de trabajo.

3) Tramitar y proponer las resoluciones que procedan sobre los recursos que en materia de personal se interpongan, todo ello sin perjuicio de las atribuciones que correspondan a los órganos competentes en materia de función pública.

b) Promover y preparar planes y programas de formación y perfeccionamiento del personal, sin perjuicio de las competencias del IVAP.

c) Coordinar en el Departamento la política de euskaldunización y normalización lingüística del personal.

5.– La Dirección de Régimen Jurídico y Servicios es el órgano responsable de garantizar el soporte necesario para desarrollar y ejecutar las iniciativas y directrices dictadas por el órgano competente en materia de Reforma y Modernización de la Administración.

6.– Igualmente le corresponden las funciones que en materia de sistemas de información y telecomunicaciones corresponden al Departamento de Interior en virtud del artículo 7 del Decreto 35/1997, por el que se regula la planificación, organización, distribución de funciones y modalidades de gestión en materia de sistemas de información y telecomunicaciones, salvo que estén asignadas a otro órgano.

7.– Le corresponde a la Dirección de Régimen Jurídico y Servicios la organización del Sistema de Registro y Archivo. Así mismo la organización de los medios bibliográficos del Departamento en coordinación con los de los servicios centrales del Gobierno Vasco y sin perjuicio de las competencias que tengan atribuidas otros órganos del Departamento de Interior.

8.– La Dirección de Régimen Jurídico y Servicios es el órgano responsable dentro del Departamento de la ejecución de las medidas de coordinación para desarrollar la intervención del Gobierno Vasco en la elaboración y aplicación de la normativa y de las políticas de la Unión Europea, de conformidad a los acuerdos y normas en vigor.

9.– La Dirección de Régimen Jurídico y Servicios es el órgano responsable de impulsar, coordinar y colaborar con las distintas direcciones y áreas del Departamento y con los organismos autónomos, entes públicos y órganos adscritos al mismo, la ejecución de lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y en el plan para la igualdad aprobado por el Gobierno Vasco.

10.– Le corresponden a la Dirección de Régimen Jurídico y Servicios las funciones que, en relación a la legislación vigente, correspondan al Departamento de Interior por tener el carácter de comunes al venir atribuidas con carácter general a todos los Departamentos en relación con las materias propias de organización.

***15. artikulua.***– Baliabide Tekniko eta Azpiegituren Zuzendaritza.

1.– Baliabide Tekniko eta Azpiegituren Zuzendaritzak ardura hauek ditu: Segurtasun Sailburuordetza baliabideez hornitzea; eta Segurtasun Sailburuordetzak bere egitekoak betetzeko behar dituen egitura fisikoak, sistema informatikoak eta telekomunikazioak hornitu eta kudeatzea. Hartara, hurrengo idatz-zatietan garatzen diren eginkizunak betetzea Zuzendaritza honen esku geratzen dira.

Era berean, Zuzendaritza honek Herrizaingo Sailburuordetza, Trafiko Zuzendaritzaren ardurapeko segurtasun-jarduerekin loturik dauden sistema informatikoak eta telekomunikaziokoak hornitu eta mantenduko ditu, eta Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia erakunde autonomiadunak bere eginkizunak betetzeko eskatutakoak ere bai, betiere, aurretiaz ordainduta daudela.

2.– Baliabide-hornikuntza eta informazio nahiz telekomunikazioen azpiegitura eta sistemen dotazioa eta kudeaketari dagokienez, zuzendaritza honen ardurak hauek dira:

a) Baliabideen hornikuntza eta dotazioaren erantzukizuna, Ertzaintzaren ibilgailuak barne, baita ibilgailuen kudeaketaren kontrola ere.

b) Herrizaingo Sailaren eraikinei dagokienez, Zuzendaritza honetan gainbegiratzeko berariazko zerbitzua egingo da: obra-proiektuak, ikuskaritza teknikoa, kalitate-kontrola, eta egiaztagirien jarraipena. Era berean, Herrizaingo Sailarenak diren eta segurtasun-jarduerekin loturik dauden informatika eta telekomunikazioko instalazioen mantentze-lana ere dago bere gain.

c) Segurtasun Sailburuordetzaren informazio-teknologien eta telekomunikazioen planak eta programak egitea, Sailburuordetzaren gainontzeko organoekin batera; eta programa horien ondoriozko informatika-zerbitzuak ematea.

d) Segurtasun Komunikazioen Sare Ofiziala, baita horrelako segurtasun-jarduerak helburu duten gainerako tresnak eta sistemak ere, plangintzan jaso, diseinatu, kudeatu eta mantentzea.

***16. artikulua.***– Giza Baliabideen Zuzendaritza.

1.– Giza Baliabideen Zuzendaritzak bere gain dauzka Ertzaintzako funtzionarioen estatutu-araubidea kudeatzea eta ezartzea, eta Ertzaintzaren giza baliabideen politikak aztertu, bultzatu eta garatzea, baita Segurtasun Administrazioko zerbitzu laguntzaileetako lan-kontratuko langileak kudeatzea ere.

2.– Ertzaintzako funtzionarioen estatutu-araubidea kudeatzea eta ezartzeari eta polizia-talde horren giza baliabideen politikak garatzeari dagokionez, hauxe dagokio:

a) Ertzaintzako funtzionarioei dagokien araubidea zuzentzea, administratzea eta, bereziki, horren kudea-

***Artículo 15.***– Dirección de Recursos Técnicos e Infraestructuras.

1.– La Dirección de Recursos Técnicos e Infraestructuras es el órgano responsable del aprovisionamiento de medios, dotación y gestión de estructuras físicas y de todo tipo de sistemas informáticos y de telecomunicaciones instrumentales necesarios para el cumplimiento de las funciones que incumben a la Viceconsejería de Seguridad, correspondiéndole a tal efecto las funciones que se desarrollan en los apartados siguientes.

Asimismo, proveerá de los sistemas informáticos y de telecomunicaciones, así como de su mantenimiento, relacionados con actividades de seguridad que competan a la Viceconsejería de Interior, Dirección de Tráfico y las requeridas por el Organismo Autónomo Academia de Policía del País Vasco, para el ejercicio de sus funciones, previa financiación por éstos.

2.– En relación al aprovisionamiento de medios y dotación, gestión de infraestructuras y sistemas de información y de telecomunicaciones, corresponderá a esta Dirección:

a) La responsabilidad del aprovisionamiento de medios y dotación, incluido el parque móvil policial, así como el control de la gestión de los mismos.

b) En cuanto a los edificios dependientes del Departamento de Interior, esta Dirección actuará como servicio específico de supervisión de los proyectos de obra, inspección técnica, control de calidad y seguimiento de certificaciones. Igualmente le corresponde el mantenimiento de las instalaciones de informática y telecomunicaciones del Departamento de Interior vinculadas a actividades de seguridad.

c) La elaboración de los planes y programas de tecnologías de la información y de telecomunicaciones de la Viceconsejería de Seguridad, en coordinación con el resto de órganos de la misma, así como la prestación de los servicios informáticos derivados de los mismos.

d) La planificación, diseño, gestión y mantenimiento de la Red Oficial de Comunicaciones de Seguridad y demás instrumentos y sistemas de esta índole destinados al desenvolvimiento de las actividades de seguridad.

***Artículo 16.***– Dirección de Recursos Humanos.

1.– La Dirección de Recursos Humanos tiene encomendada la gestión y aplicación del régimen estatutario del funcionariado de la Ertzaintza y el estudio, impulso y desarrollo de las políticas de recursos humanos de la Ertzaintza, así como la gestión del personal laboral de los servicios auxiliares de la Administración de Seguridad.

2.– En relación a la gestión y aplicación del régimen estatutario del funcionariado de la Ertzaintza y el desarrollo de políticas de recursos humanos en dicho cuerpo policial, le corresponde:

a) La dirección y administración y en particular la gestión ordinaria y aplicación del régimen aplicable al

tze arrunta eta aplikazioa. Hartara, hurrengo ahalmen hauek izango ditu:

1) Sailaren izenean ordezkaritza izatea Ertzaintzako langileen ordezkari diren erakunde sindikalekiko harremanetan, eta arlo horretako negoziazio kolektiboaren zuzendaritza eramatea.

2) Ertzaintzaren funtzionarioak lanpostuez jabetzea, administrazio-egoerak onartzea, jarduneko egoerara bueltatzea onartzea, bigarren jarduerara pasatzea ezgaitasunagatik, eta derrigorrezko zein ezintasunagatiko erretiroak onartzea.

3) Bertaratzea kontrolatzea. Ebazpen adierazia behar duten lizentziak eta baimenak ematea.

4) Bateragarritasun-espedienteak ebaztea.

5) Ertzaintzaren langileek betetako hirurtekoak eta emandako zerbitzuak aitortzea.

6) Ertzaintzaren funtzionarioen araubidea (juridikoa eta lansariena) eta laneko baldintzak kudeatzea eta aplikatzea, barne direla nomina kudeatzea, zerbitzuagatiko kalte-ordaina eta konpentsazioen araubidea, maileguak eta gizarte-onurak eman eta kudeatzea, baita Ertzaintzaren lan-egutegia aztertu, irizpena eman, negoziatu eta horri buruzko jarraipena egitea.

7) Lanpostuen zerrendak egitea eta horiek kudeatzea. Lanpostuak betetzeko Lehiaketetarako deialdiak egitea eta ebaztea, baita zerbitzu eginkizunak ematea eta baliogabetzea ere.

8) Ertzaintzako langileen gastuen aurreikuspena eta kontrola, Kudeaketa ekonomiko eta Kontratazio Zuzendaritzarekin batera koordinatuta.

9) Langileen Erregistroa zuzendu eta kudeatzea, eta ziurtagiriak ematea Ertzaintzaren funtzionarioen langorabeherei, egoerei eta aitorturiko eskubideei buruz.

10) Ertzaintzaren hizkuntza-normalkuntzaren analisia, barne-plangintza, jarraipena eta prozesuaren ebaluazioa.

b) Lan-arriskuen aurreikuspena antolatzea, eta Ertzaintzaren funtzionarioak zaintzeko berezko zerbitzua zuzendu eta kudeatzea.

c) Giza baliabideen politikak aplikatu, garatu eta bultzatzea Ertzaintzan. Baliabideak ahalik eta ondoen erabiltzeko, honela jokatuko da:

1) Ertzaintzaren langileen prestakuntza-politikaren diseinuan, plangintzan eta ebaluazioan parte hartzea, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiarekin batera.

2) Informazioko eta barne-komunikazioko sistemak diseinatzea, ezartzea eta kudeatzea.

3) Giza baliabideak egokiro kudeatzeari begira egin diren ekimenetatik eta kalitate-proiektuetatik ateratako neurriak ezartzea, arrazoiz.

funcionariado de la Ertzaintza, correspondiéndole a tal fin las siguientes atribuciones:

1) Ostentar la representación del Departamento en la relación con las Organizaciones Sindicales representativas del colectivo de la Ertzaintza así como la dirección de la negociación colectiva en dicho ámbito.

2) Dar posesión a los funcionarios y funcionarias de la Ertzaintza; declarar las situaciones administrativas, el reingreso al servicio activo, la declaración de pase a Segunda Actividad por discapacidad y la declaración de jubilaciones forzosas y por incapacidad.

3) Control de presencia. Conceder licencias y permisos que necesiten resolución expresa.

4) Resolver los expedientes de compatibilidad.

5) Reconocimiento de trienios y servicios prestados del personal de la Ertzaintza.

6) Gestionar y aplicar el régimen jurídico y retributivo y de las condiciones de empleo del personal funcionario de la Ertzaintza, incluyendo la gestión de la nómina, el régimen de indemnizaciones y compensaciones por razón del servicio y la concesión y gestión de préstamos y beneficios sociales, así como el estudio, informe, negociación y seguimiento de los calendarios laborales de la Ertzaintza.

7) Elaborar las Relaciones de Puestos de Trabajo y su posterior gestión. Convocar y resolver los Concursos de Provisión de Puestos de trabajo, así como conceder y revocar las comisiones de servicios.

8) Previsión y control de gastos del personal de la Ertzaintza en coordinación con la Dirección de Gestión Económica y Contratación.

9) Dirigir y gestionar el Registro de Personal y certificar sobre las circunstancias laborales, situaciones y derechos reconocidos al funcionariado de la Ertzaintza.

10) El análisis, planificación interna, seguimiento y evaluación del proceso de normalización lingüística de la Ertzaintza.

b) La organización de la función de prevención de riesgos laborales y dirigir y gestionar un servicio de prevención propio que atienda al personal funcionario de la Ertzaintza.

c) La aplicación, desarrollo e impulso de las políticas de Recursos Humanos de la Ertzaintza en cuanto a la optimización de los mismos mediante:

1) La participación, en coordinación con la Academia de Policía del País Vasco, en el diseño, planificación y evaluación de la política de formación del personal de la Ertzaintza.

2) El diseño, implantación y gestión de sistemas de información y comunicación interna.

3) La implantación de medidas racionalizadoras emanadas de iniciativas y proyectos de calidad para la adecuada gestión de los Recursos Humanos.

4) Giza baliabideak ahalik eta egokien kudeatzeko irizpide eta jarraibideak emango ditu.

5) Ertzaintzaren antolamenduan eta ondorengo ebaluazioan parte hartzea.

3.– Horrez gainera, Giza Baliabideen Zuzendaritzari Ertzaintzaren funtzionarioen kalte-erreklamazioa eta abokatu-asistentzia eramatea ere badagokio, baita Giza Baliabideen arloko txosten juridikoak egitea ere.

4.– Segurtasun Administrazioko zerbitzu laguntzaileetako langileei dagokienez beheragoko eginkizunak dauzka, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 5. artikuluarekin bat, eta euskal funtzio publikoaren printzipio orokorrak kontuan harturik, horiek zuzentzea eta administratzea dagokio eta bereziki:

a) Giza baliabideen politika aplikatu, garatu eta bultzatzea, langile horiei dagokienez.

b) Sailaren izenean ordezkaritza izatea ordezkari diren erakunde sindikalekiko harremanetan, eta arlo horretako negoziazio kolektiboaren zuzendaritza eramatea.

c) Segurtasun Administrazioko zerbitzu laguntzaileetako langileen lanpostu-zerrendak prestatzea.

d) Segurtasun Administrazioko zerbitzu laguntzaileetako behin-behineko lan-kontratuko langileen lan-poltsak osatu eta kudeatzea. Langile horiek kontratatzea, Euskal Herriko Polizia Ikastegiari dagokionean izan ezik.

e) Segurtasun Administrazioko zerbitzu laguntzaileetako lan-kontratuko langile finkoa izateko hautapen-proben oinarriak, programak eta edukia prestatzea. Epaimahaiak izendatzea, eta hautaketa-prozesua antolatu eta kudeatzea.

f) Segurtasun Administrazioko zerbitzu laguntzaileak langileez hornitzeko prozeduren oinarriak prestatu, deialdiak egin, prozedura bideratu eta ebaztea. Lan-kontratuko langile horiek jardunean hasteko, lekuz aldatzeko, edo dituzten lan-baldintzak aldatzeko izapideak egitea, eta, hala badagokio, baimena ematea, betiere, indarrean diren xedapenetan ezarritakoaren arabera.

g) Lan-arriskuak saihesteko funtzioa antolatzea, eta aurreikuspen-zerbitzua zuzendu eta kudeatzea.

e) Segurtasunaren eremuko estatistikak landuko ditu, hots, datu-bilketako prozesua antolatu, bildutako datuak aztertu eta prospekzioa egin, datuak ustiatu eta horiei barne-hedapena emango die.

f) Artxiboen eta polizia-erregistroen ezaugarriak, segurtasun-betebeharrak eta antolatzeko modua zehaztuko ditu, eta hori dena egokiro aplikatuko dela zainduz. Era berean, berari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Batzordearen eta hortik sortutako batzordeen agiriak eta erabakiak artxibatzea eta horien jarraipena egitea. Polizia-gaietako fondo bibliografikoak kudeatuko ditu, bai eta itzulpen eta interpretaritzako laguntza zentralizatua emateko zerbitzuak kudeatu ere.

g) Polizia-zerbitzu publikoaren araubide juridikoari buruzko alorretan aholkuak emango die Ertzaintzako zuzendaritza-organoei.

h) Otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoak (Herritarren Segurtasuna babesteari buruzkoak) eta uztailaren 30eko 23/1992 Legeak (Segurtasun Pribatuari buruzkoak) aurreikusten duten zehapen-erregimenari buruzko espedienteak ireki eta izapidetuko ditu.

i) Uztailaren 21eko 168/1998 Dekretuak ematen dizkion eskumenak erabiltzen lagunduko dio Segurtasun sailburuordeari; aipatutako Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziak toki publikoetan bideo-kamerak erabiltzeko baimenen eta haien erabileraren erregimena garatzen du.

j) Polizia Zerbitzuetarako Datuak Lantzeko Zentroa kudeatuko du, eta, zehazki, beharrezko diren antolamendu-neurriak zehaztu eta erabakiko ditu, norberaren datuen segurtasuna ziurtatzeko, nahiz datuok aldatu, galdu eta baimenik gabe tratatu edo eskuratzea eragozteko, baita herritarrek eskubide hori erabili ahal izango dutela bermatzeko ere, betiere, norberaren datuak babesteko araudiarekin bat.

k) Segurtasun publikoaren arloa dela-eta beste instituzio edo/eta erakunde publiko zein pribatuekiko harremanak sustatu, koordinatu eta bideratuko ditu; hori guztia, betiere, Herrizaingo Saileko beste zuzendaritzen eskumenei kalte egin gabe.

l) Zuzendaritzaren mendeko polizia-unitateetako plantilla organikoen proposamenak egitea, baita horien aldaketak edo ezabaketak ere.

m) Polizia-atal guztiek eska dezaketen polizia-arloko materialak eta azpiegiturak eskatzerakoan, horien beharra eta egokitasuna aztertzea eta ebaluatzea.

2.– Segurtasun Sailburuordetzaren Kabineteko Zuzendaritza, bere eginkizunak gauzatzeko, bere Egitura Aginduan zehaztuko diren Ertzaintzaren atalen laguntza izango du, bertan azalduko den mendekotasunpean.

e) La elaboración de estadísticas del ámbito de seguridad, incluyendo la organización del proceso de recogida de datos, el análisis y prospección de los datos recogidos, así como su explotación y difusión interna, en colaboración con los responsables de los diferentes órganos del mismo.

f) Definir las características, requisitos de seguridad y protocolos de ordenación de los archivos y registros policiales, así como el control de aplicación de todo ello. Asimismo le corresponde el archivo y seguimiento de la documentación y acuerdos de la Junta de Seguridad del País Vasco y de las Comisiones que de ella se deriven. Gestionar los fondos bibliográficos de referencia en materia policial, así como gestionar los servicios de apoyo centralizado en materia de traducción e interpretación.

g) Asesorar a los órganos directivos de la Ertzaintza en las materias referentes al régimen jurídico del servicio público policial.

h) Incoar y tramitar los expedientes relativos al régimen sancionador previsto en la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, de Protección de la Seguridad Ciudadana y en la Ley 23/1992, de 30 de julio, de Seguridad Privada.

i) Auxiliar al Viceconsejero o Viceconsejera de Seguridad en el ejercicio de las atribuciones conferidas al mismo por el Decreto 168/1998, de 21 de julio, por el que se desarrolla el régimen de autorización y utilización de videocámaras por la Policía del País Vasco en lugares públicos.

j) Gestionar el Centro de Elaboración de Datos para el Servicio Policial, en cuanto a la definición y adopción de medidas organizativas necesarias para garantizar la seguridad de los datos de carácter personal y evitar su alteración, pérdida, tratamiento o acceso no autorizado y ejercicio de los derechos de los ciudadanos, de acuerdo con la normativa de protección de datos de carácter personal.

k) Promover, coordinar y canalizar las relaciones, en el ámbito de la seguridad pública, con instituciones y/o organizaciones públicas y privadas, sin perjuicio de las competencias de otras Direcciones del Departamento de Interior.

l) Formular propuestas de plantillas orgánicas de las unidades policiales bajo su dependencia, así como su modificación o supresión.

m) Analizar y evaluar la necesidad e idoneidad de las exigencias de materiales e infraestructuras de índole policial que puedan ser solicitadas por las diferentes Divisiones policiales.

2.– La Dirección del Gabinete de la Viceconsejería de Seguridad, para la materialización de sus funciones, contará con la asistencia de las unidades de la Ertzaintza que así se determine en su Orden de Estructura bajo la forma de dependencia que en la misma se establezca.

***24. artikulua.***– Ertzaintzaren Zuzendaritza.

Ertzaintzaren Zuzendaritzak honako eginkizunak ditu:

a) Euskadiko herritarren segurtasuna hobetzeko neurriak eta dispositiboak prestatu eta Segurtasun Sailburuordetzari proposatzea.

b) Zuzendaritza honen menpeko Ertzaintzaren atalak, lurralde-unitateak, unitateak edo/eta sekzioak zuzenean agintzea, Ertzaintzaren egitura arautzeko Aginduaren arabera.

c) Herrizaingo Sailari Miñoien, Foralen eta Mikeleteen Sekzioen polizia-zerbitzu publikoaren arloan dagozkion ahalmenez baliatzea, betiere, bat eginik uztailaren 17ko 4/1992 Legeak (Euskal Herriko Poliziari buruzkoak) 110. artikuluan eta horrekin bat egiten dutenetan aurreikusitakoarekin.

d) Trafiko Zuzendaritzak bere eskumenekoak diren alorretan finkatzen dituen jarraibideak, zirkularrak, irizpideak eta helburuak betetzeko polizia-baliabideak erabiltzea, Dekretu honetako 11. artikuluarekin bat etorrita. Bi Zuzendaritzen artean ezartzen diren helburuak, Ertzaintzak izendatuta dituen helburuen multzoan txertatuko dira.

e) Ertzaintzaren polizia judizialaren eta krimen-gaietako eginkizunetako lanak zuzenduko ditu.

f) Polizia judizialaren arduraduna denez, ministerio fiskal eta agintaritza judizialarekiko harremanak izatea.

g) Herritarrek biltzeko eta manifestatzeko dituzten eskubideak baliatzen dituztenean, gobernu-agintariei dagozkien eginkizunak betetzea, eta, oro har, segurtasuna bermatzeari begira garrantzizkoak diren gertakizun eta jardueren aurrean herritarren segurtasuna babesteko beharrezko neurriak hartzea.

h) Herritarren Segurtasunari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoan aurreikusitako gaietako zehapen-prozedurak, gehienez ere 30.000 euroko isunak jarrita, eta aipatutako Legeko 28. artikuluak hutsegite larritzat jotako ekintzak zigortzeko gainerako zehapen-prozedurak ebaztea.

i) Abenduaren 24ko 309/1996 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoak segurtasun pribatuaren arloan dituen eskumenak arautzen ditu) Segurtasun Sailburuordetzari emandako eginkizunak betetzea. Hori dela-eta honakoak ere badagozkio: segurtasun pribatuko erakunde, zerbitzu eta jardunak baimendu, ikuskatu eta kontrolatzea, aipatutako Dekretuaren arabera; baimendutako enpresen erregistroa eramatea; 30.050 eurora arteko isunak jartzea, arau-hauste arin eta larritzat jotako ekintzak zigortzeko gainerako zehapenak ere bai; eta, dela berariaz halakoxeak direlako, dela Ertzaintzari esleitutako eginkizunei edo zerbitzuei lotuta daudelako edo horien osagarri direlako, bere eskumenekoak izan daitezkeen beste batzuk ere bai.

***Artículo 24.***– Dirección de la Ertzaintza.

Corresponde a la Dirección de la Ertzaintza el ejercicio de las siguientes funciones:

a) Elaborar y proponer a la Viceconsejería de Seguridad medidas y dispositivos conducentes a la mejora de la seguridad ciudadana en el País Vasco.

b) El mando directo de las Divisiones, Unidades Territoriales, Unidades y/o Secciones de la Ertzaintza, que dependen de esta Dirección, de acuerdo a la Orden reguladora de Estructura de la Ertzaintza.

c) El ejercicio de las facultades que correspondan al Departamento de Interior en relación al desempeño del servicio público policial por las secciones de Miñones, Forales y Mikeletes de la Ertzaintza en virtud de lo previsto en el artículo 110 y concordantes de la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco.

d) La instrumentación policial de las directrices, circulares e instrucciones y objetivos formulados por la Dirección de Tráfico en materias de su competencia, de conformidad con lo previsto en el artículo 11 del presente Decreto. Los objetivos que se establezcan entre ambas Direcciones, se incardinarán en el conjunto de Objetivos que tiene atribuidos la Ertzaintza.

e) Dirigir las labores realizadas en funciones de Policía Judicial y de Investigación Criminal en la Ertzaintza.

f) Como responsable de policía Judicial atender las relaciones con el Ministerio Fiscal y la Autoridad Judicial.

g) Desempeñar las funciones que competen a la autoridad gubernativa en el ejercicio de los derechos de reunión y manifestación y, en general, la adopción de las medidas necesarias para preservar la seguridad ciudadana ante acontecimientos y actividades relevantes para la misma.

h) Resolver los procedimientos sancionadores en materias previstas en la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, de Protección de la Seguridad Ciudadana, imponiendo multas de hasta 30.000 euros, así como las restantes sanciones previstas para la comisión de faltas graves por el artículo 28 de la citada Ley.

i) Las funciones atribuidas a la Viceconsejería de Seguridad por el Decreto 309/1996, de 24 de diciembre, por el que se regula el ejercicio de las competencias de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de seguridad privada, correspondiéndole en consecuencia: la autorización, inspección y control de entidades, servicios y actuaciones relativas a la seguridad privada en los términos del citado Decreto; la llevanza del registro de empresas autorizadas; la imposición de sanciones de multa de hasta 30.050 euros y demás sanciones previstas para la comisión de infracciones leves y graves, así como cuantas otras le puedan corresponder bien por su especificidad o bien por su inherencia o complementariedad con las funciones o servicios atribuidos a la Ertzaintza.

j) Ertzaintzak bideo-kamerak toki publikoetan erabili eta baimentzeari buruz uztailaren 21eko 168/1998 Dekretuak ematen dizkion eginkizunak.

k) Zuzendaritzaren mendeko polizia-unitateetako plantilla organikoen proposamenak egitea, baita horien aldaketak edo ezabaketak ere.

l) Ertzaintzako zentro eta unitateetan ezarri beharreko segurtasun-neurri, -arau eta -elementuei buruzko irizpideak zehaztea, arlo horretan zerikusirik duten gainerako zuzendaritzekin batera; era berean, berari dagokio aholkuak ematea, batetik, Herrizaingo Saileko komunikazio-azpiegiturei buruz eta, bestetik, instituzioetako eraikin eta instalazioen segurtasun-neurriei buruz.

***25. artikulua.***– Udaltzaingoak Koordinatzeko Zuzendaritza.

Udaltzaingoak Koordinatzeko Zuzendaritzari honako eginkizun hauek dagozkio:

a) Segurtasun Sailburuordetzari eta halaxe eskatzen duten toki-erakundeei aholku ematea udaltzaingoen arteko koordinazio-arloan.

b) Udaltzaingoen kidegoak sortzeko baimenaren eskaria izapidetzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 116.2 artikuluan ikusitako kasuen arabera.

c) Arauen esparrua finkatzea, Udaltzaingoen kidegoen antolamendu- eta funtzionamendu-erregelamenduak esparru horretara egokitu dadin.

d) Udaltzaingoko funtzionarioei aplikatzen zaien araubide juridikoa aldatzea proposatzea.

e) Homogeneotasuna bultzatzea hauei dagokienez: uniformetasuna, egiaztapena, bitarteko tekniko eta plantillen egitura.

f) Baldintzak zehaztea eta, aplikagarria den araudiak hala eskatzen duenean, baimentzea udalerrien arteko lankidetza, inoiz bereziko edo aparteko egoeretan halakorik behar izanez gero, baita jarduteko planak ere, udaltzaingoaren eginkizun espezifikoen berezko egoerei eta beharrei aurre egiteko.

g) Elkarren artean informazioa trukatu ahal izateko irizpideak, prozedurak eta bitartekoak zehaztea, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen 120.1. artikuluko d) idatz-zatian jasotakoari jarraituz.

h) Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen arteko informazioa trukatu ahal izateko irizpideak, prozedurak eta bitartekoak ezartzea bultzatuko da.

i) Udaltzaingo guztiak lotuko dituen transmisio-sarea ezartzea eta iraunaraztea, koordinazio eraginkorra bermatzeko asmoz.

j) Jarduteko prozedurak homologatzeko irizpideak sustatzea.

j) Las funciones que en materia de autorización y uso de videocámaras en espacios públicos por la Policía del País Vasco le otorga el Decreto 168/1998, de 21 de julio.

k) Formular propuestas de plantillas orgánicas de las unidades policiales bajo su dependencia, así como su modificación o supresión.

l) Definir, en coordinación con las Direcciones afectadas, los criterios sobre las medidas, normas y elementos de seguridad a implantar en los Centros y Unidades de la Ertzaintza, infraestructuras de comunicaciones que den servicio al Departamento de Interior, así como asesorar sobre las medidas de seguridad en edificios e instalaciones de carácter institucional.

***Artículo 25.***– Dirección de Coordinación de las Policías Locales.

Corresponden a la Dirección de Coordinación de las Policías Locales, las funciones siguientes:

a) Asesorar a la Viceconsejería de Seguridad y a las entidades locales que lo soliciten en materia de coordinación de policías locales.

b) Tramitar las solicitudes de autorización de creación de cuerpos de Policía Locales en los casos previstos en el artículo 116.2 de la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco.

c) Elaborar la norma marco a la que habrán de ajustarse los reglamentos de organización y funcionamiento de los Cuerpos de Policía Local.

d) Proponer modificaciones del régimen jurídico aplicable a los funcionarios de los Cuerpos de Policía Local.

e) Impulsar la homogeneización en materia de uniformidad, acreditación, medios técnicos, y estructura de plantillas.

f) Determinar las condiciones, y autorizar cuando lo exija la normativa aplicable, la colaboración entre los diversos municipios para atender sus necesidades en situaciones especiales o extraordinarias, así como los planes de actuación conjunta al objeto de atender situaciones y necesidades propias de las funciones específicas de Policía Local.

g) Determinar los criterios, procedimientos y medios que posibiliten la información recíproca prevista en el artículo 120.1.d) de la Ley de Policía del País Vasco.

h) Impulsar el establecimiento de criterios, procedimientos y medios que posibiliten la información recíproca entre Ertzaintza y las Policías Locales.

i) Establecer y mantener la red de transmisiones que enlace los diferentes cuerpos de policía local, a fin de garantizar la efectividad de la coordinación.

j) Impulsar criterios de homologación de procedimientos de actuación.

k) Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiarekin lankidetzan aritzea, Euskadiko udaltzainak hautatzeko oinarrizko irizpideak zehazten eta horretan sartzeko, etengabeko prestakuntzako, espezialitateko eta gora egiteko ikastaroak antolatzen.

l) Azterlanak edo ikerlanak egiteko taldeak sortzeko proposamenak egitea, udaltzaingoek zerbitzua emateko zereginekin zerikusia duten arloak garatzeko.

m) Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako udaltzaingoei dagozkien datuak direla-eta, Segurtasun Sailburuordetzaren erregistroen zeregina betetzea, beste organo batzuen esku ez daudenean.

n) Koordinazio eginkizunetarako, beharrezko ikuskatze baliabideak betetzea.

o) Udaltzaingoekin harremanak sortzea, Euskal Autonomia Erkidegoan trafiko, motordun ibilgailuen zirkulazioa eta bide-segurtasunari buruzko araudia bete eta interpreta dadin eta Trafiko Zuzendaritzaren lankidetzan.

p) Udaltzaingoekin harremanak ezartzea, genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko prebentzioko programa integralak koordinatzeko eta homogeneizatzeko, Genero-indarkeriaren Zuzendaritzarekin batera.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

***Lehenengoa***.– 1.– Sailburuordetza edo Zuzendaritzetako titularren postuak hutsik daudenean edo titular horiek kanpoan edo gaixorik daudenean arau hauei jarraituko zaie ordezkotzak egiteko:

a) Segurtasun eta Herrizaingo Sailburuordetzen eskumenak eta eginkizunak Herrizaingo sailburuak beteko ditu, edo kasuan kasu berak izendatzen duen Sailburuordetzako zuzendariak.

b) Zuzendariei dagozkien eginkizunak eta funtzioak haietako bakoitzari dagokion Sailburuordetzako titularrak beteko ditu, edo titular horiek berariaz izendaturiko zuzendariak.

c) Zuzenean sailburuaren menpean dauden zuzendarien ordezkotza hark kasu bakoitzerako erabakitzen duenaren arabera egingo da.

2.– Lurralde-bulegoetan postuak hutsik daudenean, edo horiek betetzen dituztenak kanpoan edo gaixorik badaude, menpe dauden Zuzendaritzako titularraren esku gelditukoda kasuan kasuko ordezkoak jartzea.

***Bigarrena***.– 1.– Segurtasun Administrazioko zerbitzu laguntzaileek burutuko dituzte Ertzaintza eta Segurtasun Sailburuordetzari, baita Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiari ere, laguntza eta babesa emateko egitekoak, eta beste zeregin lagungarri eta burokratikoak ere bai, baldin eta zeregin horiek Ertzaintzako funtzionarioei legez esleiturik ez badaude.

k) Colaborar con la Academia de Policía del País Vasco en la determinación de los criterios básicos de selección y la organización de los cursos de acceso, formación continua, especialidades y ascensos de las policías locales del País Vasco.

l) Proponer la creación de grupos de estudio o de trabajo para desarrollar las materias relacionadas con la prestación de servicios de Policía Local.

m) Llevanza de los registros de la Viceconsejería de Seguridad no atribuidos a otros órganos sobre datos relativos a las policías locales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

n) Ejercer los medios de inspección precisos para las funciones de coordinación.

o) Establecer la relación con las Policías Locales para la observancia e interpretación de la normativa sobre tráfico, circulación de vehículos de motor y seguridad vial en el Territorio de la Comunidad Autónoma en coordinación con la Dirección de Tráfico.

p) Establecer la relación con las Policías Locales para coordinar y homogeneizar los programas integrales de prevención contra la violencia de género, en coordinación con la Dirección de Violencia de Genero.

DISPOSICIONES ADICIONALES

***Primera***.– 1.– En los supuestos de vacante, ausencia o enfermedad de las personas titulares de las Viceconsejerías o Direcciones, se seguirán las siguientes reglas de suplencia:

a) Las competencias y funciones atribuidas a las Viceconsejerías de Seguridad, de Interior y de Administración y Servicios serán ejercidas por el Consejero o Consejera de Interior o por el Director o Directora que éste designe en cada caso.

b) Las competencias y funciones atribuidas a los Directores o Directoras serán ejercidas por las personas titulares de las Viceconsejerías respectivas o por el Director o Directora que éstas designen al efecto.

c) La suplencia de los Directores que dependan directamente del Consejero o Consejera se realizará conforme ésta determine para cada supuesto.

2.– Para los supuestos de vacante, ausencia o enfermedad en las Oficinas Territoriales, las personas titulares de las Direcciones de las que dependan podrán dictar el régimen de suplencias que considere oportuno en cada caso.

***Segunda***.– 1.– Los servicios auxiliares de la Administración de Seguridad tendrán a su cargo aquellas tareas auxiliares, burocráticas y de cobertura y apoyo a la Ertzaintza y la Administración de Seguridad, así como a la Academia de Policía del País Vasco, que no estén legalmente atribuidas al funcionariado de la Ertzaintza.

2.– Arestian azaldutako eginkizunaz gain, poliziako unitate eta zentroetan lan egiten duten Segurtasun Administrazioko zerbitzu laguntzaileetako lan-kontratuko langileek dagozkien Burutzak agindutako lan burokratiko laguntzaileak eta laguntzeko lanak beteko dituzte.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 5. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen Hamargarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoa aintzat harturik, Segurtasun Administrazioko zerbitzu laguntzaileetako lanpostutzat joko dira Herrizaingo Sailaren zerbitzuan diharduten langileen Hitzarmen Kolektiboaren esparruan sartzen diren lan-kontratuko langileak.

***Hirugarrena***.– Herrizaingo sailburuak emandako agindu baten bidez, erabaki daiteke Segurtasun Sailburuordearen edo Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordearen menpe dauden organo eta unitateek, Ertzaintzaren eginkizunen eraginkortasunarekin zerikusi zuzena dutenean, lantokia edo zerbitzu-zentroa Gasteizko udalerritik kanpo kokatuta izatea, nahiz eta organo eta unitate horiek lurralde-organo modura sailkatu gabe egon.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Dekretu hau indarrean jarritakoan, Dekretu honen arabera eskudun diren organoek izapidetuko eta ebatziko dituzte prestatzen ari diren espedienteak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

***Lehenengoa***.– Indargabetuta geratzen da Herrizaingo Sailaren egitura organikoa eta funtzionalari buruzko azaroaren 8ko 364/2005 Dekretua eta horretan xedatutakoaren aurka doazen maila bereko eta beheragoko xedapen guztiak.

***Bigarrena***.– Indargabetuta geratzen da Herrizaingo Sailaren egitura organikoa eta funtzionalari buruzko urriaren 19ko 358/1999 Dekretuaren Lehenengo Azken Xedapena.

***Hirugarrena***.– Indargabetuta geratzen da Metereologiako Euskal Batzordea sortzen duen ekainaren 5eko 157/1990 Dekretua.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa***.– Indarrean dagoen edozein arau edo xedapenetan «Herritarren Segurtasunerako zuzendaria» edo «Herritarren Segurtasunerako Zuzendaritza» esaten denean, hurrenez hurren, «Ertzaintzaren zuzendaria» edo «Ertzaintzaren Zuzendaritza» adierazi nahi dela ulertu behar da.

***Bigarrena***.– 1.– Jarraian zerrendatzen diren Euskal Autonomia Erkidegoak segurtasun pribatuaren arloan

2.– Además de las tareas anteriormente descritas, el personal de los servicios auxiliares de la Administración de Seguridad que desempeñe su actividad en las unidades y centros policiales realizarán las tareas auxiliares burocráticas y de apoyo que les sean encomendadas por las Jefaturas respectivas.

3.– A los efectos de lo establecido en el artículo 5 de la Ley 4/1992, de 17 de julio, de la Policía del País Vasco y la Disposición Adicional décima de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, se considerarán puestos de trabajo de los servicios auxiliares de la Administración de la Seguridad los del personal laboral comprendido en el ámbito del convenio colectivo del personal laboral al servicio del Departamento de Interior.

***Tercera***.– Mediante Orden del Consejero o Consejera de Interior podrá determinarse que el centro de trabajo o de prestación de servicios de órganos y unidades dependientes de la Viceconsejería de Seguridad o de la Viceconsejería de Administración y Servicios directamente vinculados a la operatividad de las funciones de la Ertzaintza, radique fuera del término municipal de Vitoria-Gasteiz, aun cuando se trate de órganos no calificados como periféricos.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

A la entrada en vigor de este Decreto los expedientes en curso se tramitaran y resolverán por los órganos que resulten competentes conforme a lo que en el mismo se establece.

DISPOSICIONES DEROGATORIAS

***Primera***.– Queda derogado el Decreto 364/2005, de 8 de noviembre, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Interior y cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en el presente Decreto.

***Segunda***.– Queda derogada la Disposición Final Primera del Decreto 358/1999, de 19 de octubre sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Interior.

***Tercera***.– Queda derogado el Decreto 157/1990, de 5 de junio, por el que se crea la Comisión Vasca de Meteorología.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera***.– Las referencias al «Director de Seguridad Ciudadana» o a la «Dirección de Seguridad Ciudadana» en cualesquiera normas o disposiciones vigentes se entenderán efectuadas al «Director o Directora de la Ertzaintza» o «Dirección de la Ertzaintza» respectivamente.

***Segunda***.– 1.– Los artículos que a continuación se relacionan del Decreto 309/1996, de 24 de diciembre,

dituen eskumenak arautzen dituen abenduaren 24 309/1996 Dekretuaren artikuluak honela geratuko dira idatzita:

a) 3. artikuluaren 1. atalean «Segurtasun Sailburuordetza» dioen tokian, hauxe jarriko da «Ertzaintzaren Zuzendaritza».

b) Eta 4., 5., 6. eta 8. artikuluaren 1. atalean aldatuko da «Segurtasun Sailburuordetza» testua eta, horren ordez, «Ertzaintzaren Zuzendaritza» jarriko da.

c) 9. artikuluaren c) atalean «Segurtasun sailburuordea» dioen tokian, hauxe jarriko da «Ertzaintzaren Zuzendaritza».

d) 10. artikuluan «Segurtasun sailburuordea» dioen tokian, hauxe jarriko da «Segurtasun Sailburuordetzaren Kabineteko Zuzendaritza».

e) Honela geratuko da idatzita 12. artikuluaren 1. ataleko c) letra:

«c) Segurtasun sailburuordeari, hirurogei mila ehun eta bat euro eta hogeita bat zentimo arteko isunak ezartzeko eta arau-hauste oso larri, larri edo arinengatik aurreikusitako beste edozein zehapen jartzeko.»

f) Honela geratuko da idatzita 12. artikuluaren 1. ataleko d) letra:

«d) Ertzaintzaren zuzendariari, hogeita hamar mila berrogeita hamar euro eta hirurogeita bat zentimo arteko isunak ezartzeko, baita arau-hauste larri eta arinegatik aurreikusi diren gainerako zehapenak».

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoen funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzen duen abenduaren 22ko 388/1998 Dekretuaren 4., 24. eta 25. artikuluetan, «Segurtasun Sailburuordetza» dioen tokian, hauxe jarriko da «Ertzaintzaren Zuzendaritza».

3.– Bigarren jarduerako administrazio-egoerara igarotzeari buruzko zenbait gai garatzen dituen urtarrilaren 27ko 7/1998 Dekretuan zerrendatzen diren artikuluak honela geratuko dira idatzita:

a) 3. artikuluaren 3. atalean «Segurtasun sailburuordea» dioen tokian, hauxe jarriko da «Giza Baliabideen Zuzendaritza».

b) Kendu egin da Lehenengo Xedapen Gehigarria.

c) Bigarren Xedapen Gehigarrian «Poliziaren Laguntzeko Atal Teknikoaren Zuzendaritza» dioen tokian, hauxe jarriko da «Giza Baliabideen Zuzendaritza».

***Hirugarrena***.– Euskal Autonomia Erkidegoko hiriarteko trafikoa kudeatzeko sistema arautzen duen, eta, orobat, Trafikoa Kudeatzeko Euskadiko Zentroa sortzen duen maiatzaren 22ko 87/2001 Dekretuaren artikuluak aldatzen dira, honela:

por el que se regula el ejercicio de las competencias de la Comunidad Autónoma de Euskadi en materia de Seguridad Privada, quedan redactados en los términos siguientes:

a) En el apartado 1.º del artículo 3 la expresión «Viceconsejería de Seguridad» se sustituye por «Dirección de la Ertzaintza».

b) Las referencias a la «Viceconsejería de Seguridad» en los artículos 4, 5, 6, y en el apartado 1.º del artículo 8 se sustituyen por la expresión «Dirección de la Ertzaintza».

c) En el apartado c) del artículo 9 la expresión «el Viceconsejero de Seguridad» se sustituye por la expresión «la Dirección de la Ertzaintza».

d) En el artículo 10 la expresión «El Viceconsejero de Seguridad» se sustituye por la expresión «Dirección del Gabinete de la Viceconsejería de Seguridad».

e) La letra c) del apartado 1.º del artículo 12 queda redactada como sigue:

«c) Al Viceconsejero o Viceconsejera de Seguridad para imponer multas de hasta sesenta mil ciento un euros con veintiún céntimos y cualesquiera de las restantes sanciones previstas para las infracciones muy graves, graves o leves».

f) La letra d) del apartado 1.º del artículo 12 queda redactada como sigue:

«d) Al Director o Directora de la Ertzaintza para imponer multas de hasta treinta mil cincuenta euros con sesenta y un céntimos, así como las restantes sanciones previstas para la comisión de infracciones graves y leves».

2.– En los artículos 4, 24 y 25 del Decreto 388/1998, de 22 de diciembre, por el que se aprueba el reglamento de provisión de puestos de trabajo de los funcionarios de los cuerpos de policía del País Vasco, las referencias a la «Viceconsejería de Seguridad» se sustituyen por la expresión «Dirección de la Ertzaintza».

3.– Los artículos que a continuación se relacionan del Decreto 7/1998, de 27 de enero, por el que se desarrollan determinados aspectos relativos al pase a situación administrativa de segunda actividad, quedan redactados en los términos siguientes:

a) En el apartado 3.º del artículo 2 la expresión «el Viceconsejero de Seguridad» se sustituye por «la Dirección de Recursos Humanos».

b) Se suprime la Disposición Adicional Primera.

c) En la Disposición Adicional segunda la expresión «la Dirección de la Unidad Técnica Auxiliar de Policía» se sustituye por «la Dirección de Recursos Humanos».

***Tercera***.– Se modifican los artículos del Decreto 87/2001, de 22 de mayo, por el que se regula el sistema de gestión del tráfico interurbano en la Comunidad Autónoma de Euskadi, y se crea el Centro de Gestión de Tráfico de Euskadi, que se enumeran a continuación:

a) Batetik, Euskadiko Autonomia Erkidegoan Hiriarteko Trafikoaren Kudeaketa-Sistema arautzen duena, eta, bestetik, Euskadiko Trafikoa Kudeatzeko Zentroa sortzen duen maiatzaren 22ko 87/2001 Dekretuaren 5. artikulua honela idatziko da:

«5. artikulua.– Zerbitzua nola antolatu eta eman.

1.– Euskadiko Trafikoa Kudeatzeko Zentroak operazioetarako sala bat izango du telekomunikazio loturez eta hiriarteko trafikoa kudeatzeko sistema osatzen duten osagaiak integratu zein kontrolatzeko baliabideez hornitua.

2.– Antolamendua eta funtzionamendua zehaztea Trafikoaren zuzendariari dagokio, horretarako trafikoa kudeatzeko planak onartzen ditu, Sistemaren parte diren elementuak zehazten ditu eta horien erabilera ere bai eta zentroari dagozkion eginkizunak, baita Trafikoa Kudeatzeko Zentrotik trafikoko polizia-zerbitzuei bidalitako aginduak kontrolatzen ditu.

3.– Trafikoko zuzendariak aurreko artikuluaren c), d), e), f) eta h) hizkietan erlazionatutako eginkizunak egitea eskuordetu dezake Ertzaintzako Trafikoko Ataleko arduradunarengan, beti ere, horren zuzendaritza eta gainbegiratzea gordez.

4.– Trafikoa Kudeatzeko Zentrotik trafikoko poliziazerbitzuetarako aginduen transmisioa eta lotura zentro horretan bertan egingo da, eta hartarako, Ertzaintzako funtzionario bat izango da bertan.

5.– Trafikoaren gaineko diziplina, zainketa, erregulazioa eta kontrola egiteko irudiak atzeman eta erreproduzitzeko bideo-kamerak edo beste edozein baliabide instalatu eta erabiltzea honelaxe egin beharko da: abuztuaren 4ko 4/1997 Lege Organikoaren Zortzigarren Xedapen gehigarrian eta uztailaren 21eko 168/1998 Dekretuaren Hirugarren Xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorriz.»

b) Euskadiko Autonomia Erkidegoan Hiriarteko Trafikoaren Kudeaketa Sistema arautzen duen maiatzaren 22ko 87/2001 Dekretuari IV. kapitulua gehitu zaio, «Automatizatutako Salaketak Izapidetzeko Zerbitzua» izenekoa, honela idatzita:

«IV. kapitulua

Automatizatutako Salaketak Izapidetzeko Zerbitzua

9. artikulua.– Trafikoko Zuzendaritzaren menpe Automatizatutako Salaketak Izapidetzeko Zerbitzua sortu da, zehatzeko ahalmena erabiltzeko helburuarekin, hurrengo artikuluan adierazitako terminoetan, Euskadiko Trafikoa Kudeatzeko Zentroak, ibilgailua identifikatzen uzten duten irudiak hartzeko eta erreproduzitzeko baliabideen bidez, zuzenean atzemandako lege-hausteei dagokienez.

10. artikulua.– 1.– Automatizatutako Salaketak Izapidetzeko Zerbitzuaren arduradunak eskumena izango

a) El artículo 5 del Decreto 87/2001, de 22 de mayo, por el que se Regula el Sistema de Gestión del Tráfico Interurbano en la Comunidad Autónoma de Euskadi, y se crea el Centro de Gestión de Tráfico de Euskadi pasa a tener la siguiente redacción:

«Artículo 5.– Organización y modo de prestación del servicio.

1.– El Centro de Gestión de Trafico de Euskadi dispondrá de una sala de operaciones dotada de enlaces de telecomunicaciones y de los demás medios que permitan el control e integración de los elementos que conforman el Sistema de gestión del tráfico interurbano.

2.– La determinación de su organización y funcionamiento corresponde al Director o Directora de Tráfico, que a tal fin aprueba los planes de gestión del tráfico; determina los elementos concretos que forman parte del Sistema y sus usos; dirige y controla el ejercicio de las funciones inherentes al Centro, así como la transmisión de las órdenes desde el Centro de Gestión de Tráfico a los servicios policiales de tráfico.

3.– El Director o Directora de Tráfico podrá delegar el ejercicio de las funciones relacionadas en las letras c), d), e) f) y h) del artículo anterior en el Responsable de la División de Tráfico de la Ertzaintza, reservándose en todo caso la dirección y supervisión de dicho ejercicio.

4.– El enlace y transmisión de órdenes desde el Centro de Gestión de Tráfico a los servicios policiales de tráfico será instrumentado desde el propio Centro, a cuyo efecto se destacará allí un funcionario de la Ertzaintza.

5.– La instalación y uso de videocámaras y de cualquier otro medio de captación y reproducción de imágenes para el control, regulación, vigilancia y disciplina del tráfico se efectuará conforme a lo dispuesto al efecto en la Disposición Adicional Octava de la Ley Orgánica 4/1997, de 4 de agosto y la Disposición Adicional Tercera del Decreto 168/1998, de 21 de julio.»

b) Se añade un nuevo Capítulo IV titulado «Servicio de Tramitación de Denuncias Automatizadas» al Decreto 87/2001, de 22 de mayo, por el que se Regula el Sistema de Gestión del Tráfico Interurbano en la Comunidad Autónoma de Euskadi, con la siguiente redacción:

«Capítulo IV

Servicio de Tramitación de Denuncias Automatizadas

Artículo 9.– Se crea el Servicio de Tramitación de Denuncias Automatizadas, dependiente de la Dirección de Tráfico, con objeto de ejercer la potestad sancionadora en los términos que se expresan en el siguiente artículo en relación a las infracciones detectadas directamente por el Centro de Gestión de Tráfico de Euskadi a través de medios de captación y reproducción de imágenes que permitan la identificación del vehículo.

Artículo 10.– 1.– El responsable o la responsable del Servicio de Tramitación de Denuncias Automatizadas

du trafikoko eta bide-segurtasuneko lege-hauste hauek zehatzeko:

a) Abiadura mugak ez betetzeagatik, lege-hauste arin, larri eta oso larriak Euskadiko Trafikoa Kudeatzeko Zentroak, ibilgailua identifikatzen uzten duten irudiak hartzeko eta erreproduzitzeko baliabideen bidez, zuzenean atzemanda.

b) Aurreko hizkian aipatu arau-haustearen gidari erantzulea benetan identifikatzeko betebeharra ez betetzeko lege-hausteak.

2.– Kasu horietan, Automatizatutako Salaketak Izapidetzeko Zerbitzuko instrukziogilea izango da dagozkien zehapen-espedienteak izapidetzeko organo arduraduna.

3.– Automatizatutako Salaketak Izapidetzeko Zerbitzuko arduradunak emango dituen zehapen-ebazpenek ez dute administrazio-bidea amaitzen eta horien kontra hierarkiaz gainetik duen Trafikoko Zuzendaritzaren aurrean gora jotzeko errekurtsoak aurkez daitezke.»

c) Batetik, Euskadiko Autonomia Erkidegoan Hiriarteko Trafikoaren Kudeaketa-Sistema arautzen duena eta, bestetik, Euskadiko Trafikoa Kudeatzeko Zentroa sortzen duen maiatzaren 22ko 87/2001 Dekretuaren Eranskinaren 2.4. artikulua honela idatziko da:

«2.4.– Ertzaintzaren trafiko-zerbitzuak: Dekretu honetan zehaztutako terminoetan gauzatu beharko da Ertzaintzaren unitateentzako laguntza eta euskarria.»

***Laugarrena***.– Euskadiko Autonomia Erkidegoan Hiriarteko Trafikoaren Kudeaketa-Sistema arautzen duen maiatzaren 22ko 87/2001 Dekretuaren IV. kapitulu berriari emandako eginkizunak Automatizatutako Salaketak Izapidetzeko Zerbitzuak hartuko ditu bere gain Herrizaingo sailburuaren aginduz zehazten den egunetik aurrera, Zerbitzuak benetan gauzatzeko behar dituen baliabide eta bitartekoak izan eta gero. Ordura arte, eskumen hori Trafikoko Zuzendaritzako Lurraldebulegoko buruei egokituko zaie.

***Bosgarrena***.– 1.– Jarraian zerrendatzen diren Bide Segurtasun Batzordearen antolamendua eta jarduteko modua arautzen dituen abenduaren 16ko 212/2008 Dekretuaren artikuluak honela geratuko dira idatzita:

a) 1. artikuluan «Segurtasun Sailburuordetza» dioen tokian «Herrizaingo sailburua» ezarriko da.

b) 3. artikuluaren 1. A) ataleko a) hizkian «Segurtasun sailburuordea» dioen tokian «Herrizaingo sailburua» ezarriko da.

2.– Honela geratuko da idatzita 3. artikuluaren 1. ataleko A) azpiataleko C) hizkiko 3) zenbakia:

será competente para sancionar las siguientes infracciones a la normativa de tráfico y seguridad vial:

a) Infracciones leves, graves y muy graves por incumplimiento de las limitaciones de velocidad detectadas directamente por el Centro de Gestión de Tráfico de Euskadi a través de los medios de captación y reproducción de imágenes que permitan la identificación del vehículo, y

b) las infracciones por incumplimiento de la obligación de identificar verazmente al conductor responsable de las infracciones referidas en la letra anterior.

2.– En tales casos será el Instructor o Instructora del Servicio de Tramitación de Denuncias Automatizadas el órgano encargado de la instrucción de los correspondientes expedientes sancionadores.

3.– Las resoluciones sancionadoras que dicte el o la responsable del Servicio de Tramitación de Denuncias Automatizadas, no agotan la vía administrativa y serán recurribles en alzada ante la Dirección de Tráfico de la que depende jerárquicamente.»

c) El apartado 2.4 del anexo al Decreto 87/2001, de 22 de mayo, por el que se Regula el Sistema de Gestión del Tráfico Interurbano en la Comunidad Autónoma de Euskadi, y se crea el Centro de Gestión de Tráfico de Euskadi pasa a tener la siguiente redacción:

«2.4.– Servicios de tráfico de la Ertzaintza: el apoyo y soporte de las unidades de la Ertzaintza se instrumentará en los términos previstos en este Decreto.»

***Cuarta***.– La asunción por el Servicio de Tramitación de Denuncias Automatizadas de las funciones que le asigna el nuevo Capítulo IV del Decreto 87/2001, de 22 de mayo, por el que se Regula el Sistema de Gestión del Tráfico Interurbano en la Comunidad Autónoma de Euskadi, sólo será efectiva a partir de la fecha que se determine por Orden del Consejero o Consejera de Interior, una vez disponga el Servicio efectivamente de los medios y recursos necesarios para ejercerla adecuadamente. Hasta entonces tal competencia corresponderá a los Jefes de las Oficinas Territoriales de la Dirección de Tráfico.

***Quinta***.– 1.– Los artículos que a continuación se relacionan del Decreto 212/2008, de 16 de diciembre, por el que se regula la organización y funcionamiento de la Comisión de Seguridad Vial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, quedan redactados en los términos siguientes:

a) En el artículo 1 la expresión «Viceconsejería de Seguridad» se sustituye por «Consejero o Consejera de Interior».

b) En la letra a) del apartado 1, A) del artículo 3 la expresión «Viceconsejero o Viceconsejera de Seguridad» se sustituye por la expresión «Consejero o Consejera de Interior».

2.– El número 3) de la letra C) del subapartado A) del apartado 1 del artículo 3 queda redactado como sigue:

«3) Hurrengo arlo hauetan eskumena duten sail bakoitzeko ordezkari bat:

– Lehendakaritza.

– Industria.

– Hezkuntza.

– Garraioak.

– Kultura.

– Osasuna.

– Ingurumena.

– Justizia.»

***Seigarrena***.– Euskal Metereologia Agentzia sortzen duen abenduaren 16ko 311/2003 Dekretuan «Garraio eta Herri Lan Saila», «Garraio eta Herri Laneko sailburua» eta «Garraio eta Herri Laneko sailburuordea» esaten denean «Herrizaingo Saila, Herrizaingo sailburua eta Herrizaingo saiburuordea» adierazi nahi dela ulertuko da.

***Zazpigarrena***.– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea arautzen duen urtarrilaren 16ko 5/2007 Dekretuaren 3. artikuluko b) hizkiaren 1. atala honela idatziko da:

«b) Batzordekideak:

– Eusko Jaurlaritzak, batetik, hiru ordezkari izango ditu dagozkien sailburuak izendatuta, sailburuorde maila eta arlo hauetako ardurak izango dituztenak: administrazio publikoa, enplegua eta gizarte gaiak, eta, bestetik, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendaria.»

***Zortzigarrena***.– Dekretu hau Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Donostia-San Sebastiánen, 2009ko abuztuaren 28an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Herrizaingo sailburua,
RODOLFO ARES TABOADA.

«3) Un o una representante por cada uno de los Departamentos que tengan competencia en las siguientes áreas de actuación:

– Presidencia.

– Industria.

– Educación.

– Transportes.

– Cultura.

– Sanidad.

– Medio Ambiente.

– Justicia.»

***Sexta***.– Las referencias al «Departamento de Transportes y Obras Públicas», «Consejero de Transportes y Obras Públicas» y «Viceconsejero de Transportes y Obras Públicas» en el Decreto 311/2003, de 16 de diciembre, por el que se crea la Agencia Vasca de Meteorología, se entenderán efectuadas al «Departamento de Interior», «Consejero o Consejera de Interior» y al «Viceconsejero o Viceconsejera de Interior» respectivamente.

***Séptima***.– El apartado 1 letra b) del artículo 3 del «Decreto 5/2007, de 16 de enero, de regulación de la Comisión Interinstitucional para la Igualdad de Mujeres y Hombres», pasa a tener la siguiente redacción:

«b) Vocales:

– En representación del Gobierno Vasco por un lado, tres personas nombradas por su respectivos Consejeros o Consejeras y con rango de Viceconsejeras, o Viceconsejeros, responsables respectivamente de las siguientes materias: administración pública, empleo, y asuntos sociales, y por otro lado, la Directora o Director de Atención a las Víctimas de la Violencia de genero.»

***Octava***.– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Donostia-San Sebastián, a 28 de agosto de 2009.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

El Consejero de Interior,
RODOLFO ARES TABOADA.